

DAVID MARCOS eta LEIRE GARCIA

PASA DEN URTARRILAREN 24AZ GEROZTIK ERMUKO KIROLDEGIA UMEENTZAKO IGERIKETA IKASTAROAK ANTOLATZEN HASI ZEN. BI TALDE DAUDE UMEEN ADINAREN ARABERA. 6-18 HILABETE BITARTEKO UMEEK OSATZEN DUTENA ETA 18-36 HILABETE BITARTEKOEN TALDEA. HORIEN GIDARITZAN DABILTZA BI GAZTE HAUEK, DAVID ETA LEIRE. EZ DUTE AURRENEKO ALDIA, LEHENAGOTIK ERE ANTOLATU IZAN BAITIRA HALAKOAK. LARUNBAT GOIZETAN IZATEN DUTE HITZORDUA ETA BERAIEKIN ETA UMEEN GURASOEKIN IZAN GINEN.

-Zer moduz doa orain artekoa?

Pozik gaude. Giro jatorra lortu dugu guraso eta umeekin. Hala ere, zenbait gurasok kale egin dute eta umeak zerbitu badu ere, larregi ez bada, ikastarora etortzea komeni da.

-Pazientzia haundia izan beharko da...

Gehienbat hasieran. Haurrek gurasoen laguntzaz hasi behar izaten dute eta hauek sarritan haurra bera baino urduriago egoten dira. Haurrek hori ere nabaritzen dute eta negarrez hasaten dira.

-Umeak oso azkarrak dira. Anekdotarik ere izango duzue kontatzeko...

Bai, uste baino gehiagotan harritzen gaituzte. Ura-

ren temperatura 2°C soilik jeisten baldin bada, berehala nabaritzen dute!.

-Zein ote da gutxien gustatzen zaizen ariketa?

Gorputz osoa, buru eta guzti ur azpian sartzea.


-Ikastaroak zenbat irauten du?

Astean 35 minutuko saio bat izaten dugu, larunbat goizetan. Guztira 13 saio izango ditu ikastaroak.

-Urtean zehar halako zenbat ikastaro antolatzen dira?

3 ikastaro egiten dira. Hau da aurtengo lehenengoak, apirilaren 24ra arte iraungo du eta bigarrena maiatzaren 8an hasi eta uztailearen 24ra arte izango da.

-Zer moduzko erantzuna dute halako ikastaroek?



"umeek uste baino gehiagotan harritzen gaituzte"

Geroz eta jende gehiagok ematen du izena. Aurreneko ikastaro honetan adibidez, batzuk ezin izan dute parte hartu. Gehienez 7 haurrez osatutako taldeak osatu ditugu.

-Zein onura dakar igeriketa txikitatik hasteak?

Asko dira alde onak eta hainbat gauza ikasten dituzte: ●reka mantentzen, uretan egoten, beste haur batzuekin harremanak lantzeko balio du, gurasoekiko konfiantza indartzeko, euren kasara mugitzen ikasteko, lasaitzen ikasteko... Igeriketa oso ona da umeentzat ere.

-Oso gazte hasi baina jarraipenik izaten al du?

Gehienetan bai. Gurekin ikastaroa egin ostean, gura-

so askok haurrak beraiekin ekartzen dituzte igeriketan sakontzen laguntzeko.



AITOR ETA PERU

"Aita Zumaiarra izaki normala da urarekin harremana izatea. Etxean ere bainua oso gustura hartzen du eta erraz moldatu da hasieratik. Kostako putzu, itsaso eta urekin beldurrik ez izateko ere ekarri genuen. Ondo etorriko zaio. Etxetik atera, igerilekua ikusi eta berehala ohartzen da norra datorren."



RAMON ETA JONE

"Udara begira, itsaso eta igerilekuetan erreza ibili ahal izateko animatu ginen. Hemen ibili ostean lasai-lasai pasatzen du eguna. Lehen egunean negar pixkat egin zuen baina jada moldatu da. Zangoak, besoak,... eguneroko ibilian egiten ez dituen mugimenduak lantzen ere laguntzen dio honek"



JOSE RAMON ETA ALEX

"Igerilekura etorrita, beste haur batzuekin harremana izateko eta urari berari ere beldurra galtzeko ekarri genuen. Lehen egunetik oso ondo moldatu da. Etxean ere bainua oso gogoko izan du beti. Larunbatak lasaigoak dira hemen hasi denetik."

YOLANDA ETA VALERIA

"Gu Durangon bizi gara baina han ez dugu honelako aukerarik. Getxoko lagun batek gomen datu zigun eta benetan oso pozik gaude. Hasiera nahiko gogorra izan zen. Negarrez pasa zuen goiz osoa. Igerilekuak, gosea sorrarazten dio eta ohiko mugimenduez gain gorputzeko beste atal batzuk mugitzeko aukera eskeintzen du."

MARI CARMEN ETA UDANE

"Urarekin beldurrik izan ez dezan ekarri genuen. Ura betidanik asko gustatu zaio. Etxean ere ur artean bada, oso gustura egoten da. Mugikortasuna lantzeko oso ondo etorriko zaio. Bai bera eta gurasoak ere oso pozik etortzen gara".



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERNA

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

Aldapa 1

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

943 17 60 52

FAMILIA, BIKOTE eta BARRAKO TERAPIA

OREKA PSIKOLOGIA

● HARREMAN ARAZOAK — bikotearekin — familiarekin — kideekin

● JARRERA ARAZOAK

● ESKOLA PORROTA

● ANTSIETATEA, DEPRESIOA, ELIKADURA ARAZOAK

miriam mujika 676 61 70 55 AURREA EDIZIOA

ainhoa basurko 615 70 37 25 URTZALE KALEA-1.

DROGETENITURRI

EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50

Elexoste

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak

UDAL EUSKALTEGIA

Gure Etxea z/g (Ongarai)

Tel. 943 17 09 25